




Xabier Anduaga vuelve a casa tras su reciente éxito en Viena. SARA SANTOS

LAS GRANDES CITAS

► **4 de agosto.** El 'Stabat Mater' de Rossini con la Orquesta de Valencia, el Orfeón Donostiarra y Xabier Anduaga.

► **9 de agosto.** 'Amaya', la ópera en euskera de Guridi, en versión concierto.

► **12 de agosto.** Recital de arias de Xabier Anduaga en el Victoria Eugenia con el pianista Maciej Pikulski.

► **20 de agosto.** 'West Side Story' en concierto con Miren Urbietta-Vega de María, Euskadiko Orkestra y Coro Easo.

► **24 de agosto.** Jordi Savall con Le Concert des Nations y La Capella Nacional de Catalunya.

► **27 de agosto.** Orquestre de l'Opera National de Paris con su homenaje a Ravel.



La pianista Mitsuko Uchida.

agosto), la coreógrafa Rafaela Carrasco indaga junto al poeta y dramaturgo Álvaro Tato en la relación de las personas con el mundo de la noche. El 12 de agosto el

Testurik ez izanagatik, irakurtzeko asko duen album ilustratua

Maite Gurrutxagak 'Tapakia' (Erein) ondu du, «behin izandako haur irakurleari egindako keinua»

JON AGIRRE

DONOSTIA. Istorio txiki bat, geruzaka deskubritzen joateko pentsatua dagoena eta testu faltan -sarreratxoaz aparte album mutua baita- xehetasunez josiriko album ilustratua irakurleak erabaki dezan «non geratu: zein pertsonailetan, zein objektutan». Hala definitu zuten Maite Gurrutxagak ondutako 'Tapakia' (Erein). Zortzi urte arteko haurrei bideratua, egileak buruan izan du maiz bera nola gerturatzen zen liburuetara eta umeek «irudia irakurtzeko duten gaitasun handia, intuizio naturala» goraipatu du. Urteak pasa ahala helduak galtzen goazela iritzi zuen.

Abiapuntua azalak berak ematen du. «Aurreiritziz josia» bizi den A sagua aurkezten da bertan, tapaki zuri-zuriaren jabea, eta bizilagun kanpotarraren seme-alabei leporatu die puskatzea. Bilakaera hori jasotzen du eta liburuaren amaierako tapakia da amaiera. Tapakia izatea zein pertsonaia animalia izatea ez dira ausazko erabakiak. Lehenak album ilustratuaren jatorriarekin zerikusia du, 2022an Guadalararako azokara gonbidatu zutenean Mexikora egindako bidaian, Gurrutxagak azaldu zuenez. «Hasieratik nekien mantent eta tapaki bat ekarri nahi nituela eta Guajakana aurkitu nituen». Etxea apaindu eta kolorez beteko zuen elementua, nolabait, bidaia hura oroitzeko zion



Maite Gurrutxaga, 'Tapakia' albuma eskuetan duela. JOSÉ MARI LÓPEZ

TAPAKIA MAITE GURRUTXAGA

Estiloa: Album ilustratua.
Argitaletxea: Erein. Orrialdeak: 28.
Adin gomendatua: 0-8 urte.
Prezioa: 17 euro.

artefaktua izango zela-eta «horrekin zerbait egiteko» bulkada sentitu zuen. Prozesua ez zen lineala izan, eta forma asko hartu zituen, sagu-auzora heldu arte.

Inazio Mujikak galdetuta, azaldu zuen proiektuak bereak direnean edo anaiarekin kolaboratzen duenean «lasaiago» hartu ohi dituela. «Hausnartzen egoteko aukera dago, zurea da, zuk eraikitzen duzu, ez dago inor zain». Besteen testuak ilustratzea egokitzen zaionean -hala egin du, besteak beste Joseba Sarriorendia, Karlos Linazasoro, Mariasun Landa, Alaine Agirre edo

Itziar Zubizarretarenekin- Isidro Ferrer zitatuz oroitu zuen «ilustratzea lerro artean dagoena kontatzea» dela eta ilustratzailearen lana «zure irakurletatik eman eta irakurleak irakurtzen jarraitzeko 'zerbait' eskaintzea» dela.

Hitzik ez, geruzak ugari

Ipuinetan hain ohikoa den «bizen behin...» bat aurkituko du irakurleak hasieran. Ostean ez da testutik, baina keinua sartu nahi izan du «irakurtzeko gauza bezala» irudikatu zuelako. Gehitu zuenez, «irudia da irakurri behar dena» eta horregatik ditu hainbeste xehetasun eta geruza, irakurleak erabaki dezan «non geratu». Asmoa indartzeko du albumak formatua, behin irekita «apaizatua» egiten baita «bertan geratzera gonbidatzeko».